

IZPARRAK

Manez Etxamendi il.—Aurtengo maiatzaren lenen-
gotan il yakun bertsolari ospe andiko bat: Manez
Etxamendi, Ezterenzubi'ko semea, zortzi seme-alabaen
aita. 87 urte ebazau il zanean. Gizon arteza ta zo-
rrotza, luzaro erriko alkate izana, beti iñoren ona
billatuaz bizi izan zana. Bizi izan zan lez il zan, kistar
on ta zintzo.

Euskal-zelaian dogu, batez be, entzute andikoa;
aren bertso ta kantuak Euskalerra guztian zabaldua
dagoz, oso errez, gatz-ozpindu ta jakingarri bait-dira.
Olerkirako doai ta garrez betea gendun, eta gainera
bere lerro guztietan agertzen yaku fede bizi ta zen-
tzun osoko. Jainkoa, barriz, bere kantagai lenena.
Jainko ta fedez ornidutako bertso eder sakonik asko
itxi dausku or-emengo aldizkari ta egunerokoetan ar-
gitaratuta. Goian bego olerkari kistarra.

Bertsolariak Paris'en.—Bertsolaritza gero ta ugaria-
gotuz doakigu; mugaz emendik ots andia atera eben
igaz gure plaza-gizonok. Eta andik, gitxiago ez iza-
tearren noski, jai ederrak eratu ta egin dabez Urru-
ña'n, Sara'n ta azkenez Paris'en. Orrela egun zoraga-
rriak igaro dabez ango erritarrak. Zorionak, batez be,
ango bertso-egun eratzaille gartsu dogun Errandorena
jaunari.

Bertsolariak Nevada'ra.—Mugaz andiko bertsolari
trebe diran Xalbador eta Mattin-Ipar-Amerika'ra joa-
teko dira laster, an Nevada'n aspalditik bizi diran
euskaldun anaiak deituta. Eta barri au pozgarri yaku
nai-ta-ez. Gizon famatuak, izlari, idazle, ostikolari, pe-
lotari, zezenlari ta abar. alde guztietatik deituak dira;
gure bertsolariak be bai, ta au alaigarri da guztion-
tzat. Len sagardotegietan baiño ekiten ez eutsen ber-
tsolari arlotetxoak gaur or doiaz egaz, urriñetako baz-
terretan be euren bat-bateko saio ta jardun ederrak
entzun-azoten.